

EGK-k gazteen kezka, interesak, beharrak, arazoak eta proposamenak azaldu dizkio lehendakariari

- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua Iñigo Urkullu lehendakariarekin, Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarekin eta Marcos Muro Enplegu eta Gazteriako sailburuordearekin bildu da Lehendakaritzan
- Ordubeteko bileran, EGK-ko lan arloetan jorratzen diren gaiak aztertu dira: etxebizitza, enplegua, hezkuntza, berdintasuna, parte-hartzea eta bakea eta bizikidetzak

Gasteiz, 2018ko irailaren 18a. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) Iñigo Urkullu lehendakariarekin, Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarekin eta Marcos Muro Enplegu eta Gazteriako sailburuordearekin bildu da gaur goizean. Ordubeteko bileran, elkarten plataformak gazteen kezka, interesak, beharrak, arazoak eta proposamenak helarazi dizkie eta “politika publikoen diseinu eta jarraipenean gazten ahotsa bermatzea eta kontuan hartzea” aldarrikatu du.

Lehendakaritzan egindako bileran, Maialen Olabek, EGK-ko presidenteak, erakundearen funtzioa eta garrantzia azpimarratu du. “60 gazte-elkarte eta hainbat gazteren parte-hartzearekin aurrera eramaten ditugu ekimenak, gazteontzako garrantzitsuak diren gaiak identifikatu eta gure ahotsa erakundeetarako eramateko”. Era berean, Olabek “elkarten” eta, ondorioz, “EGKren aniztasuna eta pluraltasuna” nabarmendu du, besteak beste “ikasle mugimenduak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna jomuga duten elkarteak, astialdi hezitzaileko federazioak, alderdi politikoen gazteriak, enpresari gazteak, sindikatuen gazteria sailak edo LGTBI+ kolektiboaren beharrianak asetzea” helburu duten elkarteek osatzen dutela adieraziz.

EGKren azalpena arloz-arlo

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan (EGK) lantzen diren arlo ezberdinetako gai garrantzitsuenak jorratu dira eta, horretarako, EGK-ko teknikari bakoitzak azken hilabeteetan egindakoaren larroburuak azaldu ditu:

Enplegua eta etxebizitza: “Emantzipazioa eta honekin estuki lotuak dauden enplegua eta etxebizitza gazteen lehentasunezko gai dira krisi ekonomikoak eztanda egin zuenetik. Batez beste 30 urterekin emantzipatzen dira gazteak, soldatak 996€koak dira eta alokairuak 880€koak. Etxebizitza gastuetara diru-sarreraren %30a bideratzea aholkatzen bada ere, errealitate oso bestelakoa da: jabetzan %54,9 eta alokairuan %66 bideratzen da egun. Egoera horretan, *Emantzipa...Zer?* lantaldean administrazioek jorrotutako politika publikoei jarraipena egin zaie, iritzi eta hobekuntza proposamenak bildu eta arduradun politikoei helarazteko. Era berean, azken urteetan indarra hartu duen Formakuntza Duala aztertzeke bi jardunaldi egin dira (Gasteizen eta Donostian) gazteei eskaintzen zaizkien baldintzen azterketa egiteko. Beka eta praktikekin eskatu izan den bezala, ikuskaritza eta jarraipena garrantzitsua da formula hauen bitartez prekaritatea susta ez dadin eta gazteei eskaintutako baldintzak duinak izan daitezen”.

Berdintasuna: “Emakume eta gizonen berdintasunean oinarritutako eta LGTBI+ kolektiboaren beharrianak aseko dituen gizarte jomuga izanda, hau erdiesteko oztopoen aurka lan egitea da lan-arloaren helburu nagusietako bat. Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloa 34 aldiz

aktibatu behar izan da 2018an (EGK-k ezagutu ez dituen eta salatu ez diren kasuak gehitu beharko lirateke). Horri erantzuna emateko, hezkidetza nola jorratzen den aztertu da, gazteen iritzia eta esperientzia bildu eta diagnosi horretatik abiatuta proposamenak egiteko. Era berean, emakumeek esfera publikoan dituzten esperientzia, oztopo eta arazoak aztertzeko ekitaldia egingo da urrian; gerora ondorio nagusiak publiko egingo dira”.

Hezkuntza: “Formalean, UPV/EHUREkin sinatutako hitzarmenaren barnean unibertsitateko gazte-elkarteen topaketa egingo da azaroan; ez-formalean kompetentzia eta egindako lanaren aitortza eskatuko da aurten ere #IzanZuAldaketa boluntariora-topaketaren bitartez eta astialdiko eskola eta federazioek eskainitako ikastaro eta titulazioen homologazioan zubi-lana egingo da hauen eta administrazioen artean”.

Parte-hartzea: “Azken urteotan gazteen parte-hartzeko modua aldatu dela ikusi da azken ikerketetan (Gazten Euskal Behatokiarekin EGK-k elkarlanean egindako Joerak 9 esaterako). Hori dela-eta, hainbat proiektu eta ekimen sustatu dira gazteen parte-hartze eredu berriak aztertzeko. Era berean, Europan barrena garatu diren ereduak aztertu dira, bai metodologia bai prozesu aldetik, ondoren EGK barnean aplikatzeko eta EAeko gazte-elkarteei helarazteko. Europan gazteen emantzipazioa errazteko diseinatu diren politikak ere aztertu dira, EAEn zer aplikatu daitekeen ikusteko”.

Bakea eta bizikidetza: “Krisiak eztanda egun zuenetik gazteentzat bestelako gaiak lehenetsunezkoagoak badira ere, espazioak sortu diren heinean interes handia azaldu dute. Horregatik, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetza Idazkaritza Nagusiarekin sinatutako hitzarmenaren baitan bi izango dira ildo nagusiak: batetik, 2014-16ko hitzarmenean jorratutako gaiak; eta, bestetik, idazkaritzaren agenda berriarekin lotutako gaiak. Aurreko hitzarmenean egindakoa Bartzelonako kongresu batean azalduko da; bizikidetza lantzeko kultura eta jatorri ezberdineko emakumeekin topaketa egingo da, anitza den gizarte baten bizikidetza errealitate bilatzeko dituzten erronkak identifikatzeko eta, azkenik, 2019an hasiko den Etikari programaren oinarri teorikoak sortuko dira”.

Gogoratu behar da EGK 1986an Eusko Legebiltzarrean adostutako lege baten bidez sortu zela eta gazteen ikuspuntua erakundeetara helaraztea dela bere eginkizun nagusienetarikoa.

Info+
komunika@egk.org
688 675 932